

"Maitemintzeko moduko saskia"

EROSKI-K ABIAN JARRI DU KANPAINA KOMERTZIAL BERRIA AURREZTEN LAGUNTZEKO

- Aste honetan eskura egongo da saltegietan mila produktutik gorako saskia, oinarrizko produktu osasungarri, askotariko eta prezio aldetik lehiakorrek
- Joan deneko urte batean sustapen jarduera bizi bat egiten ari da katea, eta kanpaina hau horren parte da
- 2022an inflazioaren azken hazkunde handia hasi zenetik eta 2023an, EROSKI 100 milioi euro inbertituko ditu marjina komertzialean, eta prezioak doituiko ditu kontsumitzaileari kostuen igoera osoa ez bizkarreratzeko

Madril, 2023ko martxoaren 13a.- Martxoaren 16an, [EROSKI](#) beste kanpaina komertzial bat abiatuko du, "Maitemintzeko moduko saskia" izenarekin. Askotariko ekimenak egiten ari da azken hilabeteetan inflazioa erosketetan izaten ari den eragina arintzeko, eta eginahal horren parte da kanpaina hau. EROSKI 2022an zortzi kanpaina komertzial egin zituen, eta hau gaineratu behar zaie zortziei.

Ostegun honetatik aurrera, EROSKIren saltegietan kontsumitzaileek eskura izango dute produktu sorta zabal, osasungarri eta askotariko bat, oso prezio lehiakorretan.

Erantzukizuna eta eginahala

2022an, produktuen hornitzaileek EROSKI taldeari transferitutako gainkostuak %15etik gorakoak izan ziren, besteak beste lehengaien, energiaren eta erregaien prezioen eboluzioa dela eta. Gainokostu horiek ez dira osorik transferitu prezioetara, eta EROSKI bere gain hartu du zati bat 44 milioi eurotik gorako inbertsioa eginda.

"Inflazio eskalada hasi zenetik, eginahal itzela egiten ari gara horrek erosketa saskiaren gain dituen ondorioak arintzeko; horretarako, oso modu esanguratsuan gutxitu ditugu gure marjina mugatuak", azaldu du EROSKIren zuzendari komertzialak, Beatriz Santosek. "Konturatzen gara etxeetan zer pairatzen ari diren, eta oso kezkatuta gaude horrekin. Horregatik ari gara gutxitzen horrek familien poltsikoetan duen eragina. Beraz, erantzukizun eta konpromiso maila handia erakusten ari gara beste behin. 2022ko 44 milioiez gain, beste 12 milioi inbertitu ditugu inflazioaren inpaktua apaltzeko. Horrela, 2022an inflazioaren azken hazkunde handia hasi zenetik eta 2023an, EROSKI 100 milioi euro inbertituko ditu", nabarmendu du Santosek.

Kontsumitzaileen eskariari erantzuteko eta babes neurri bezala, EROSKI bultzada bat eman die bere markei berei, sorta zabalduta eta sustapenak eta deskontuak areagotuta. 2023. urte honen hasieran, marka propioaren zama dagoeneko %27tik gorakoa da

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

[Online prentsa aretoa](#)

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

azubiaga@consejerosdelnorte.com

ontziratutako produktuetan, eta %7 handitu da produktuon kopurua EROSKIIn erosten dutenen saskian.

Produktu freskoak ere badakartzan saski osasungarria

Saskiak mila produktutik gora ditu, eta horietatik %52 egunero edo astero kontsumitzen direnak dira, hala nola esnekiak, berdurak, frutak, olioak, arroza, pastak, lekaleak, fruitu lehorrak eta arraina. Produktuen %20 norbere burua eta etxea garbitzekoak dira, eta noizbehinka kontsumitzen diren produktuekin osatuta dago, hala nola galletekin, hestebeteekin eta txokolatearekin.

"Prezioaren kokapena hobetu dugu gehien kontsumitzen diren 1.000 produktutan baino gehiagotan, eta soluzio osasungarriak eman ditugu bete-beteko saskia osatuta: produktu freskoak, elikagaiak, norbera eta etxea garbitzekoak... Etxe mota orotarako produktuak sartzen dira, bai marka propioak eta bai beste marka batzuetakoak. Saskia osatzen duten produktuen erdiek baino gehiagok ez dituzte bi euroak gainditzen, eta horietatik 200ek ez dute euro 1 gainditzen", zehaztu du EROSKIren zuzendari komertzialak.

Sustapen jarduera bizia

Horretaz gain, EROSKIk jarduera komertzial bizia darama sustapenen, fidelizazio klubaren eta beste jarduera batzuen bitartez. Horrek guztiak 335 milioi euro aurreztarazi zizkien kontsumitzaileei 2022an. Hala, 78.000 familia baino gehiago ari dira dagoeneko 0-12 Familia Planaren onurak ikusten. Plan horrek EROSKI Club fidelizazio programa biltzen du, eta 12 urte arteko haurrak dituzten familientzat prentsatuta dago. Deskontu eskusiboak egiten dizkie, eta 2022an %2ko aurrezpena gaineratu zien EROSKIIn hilean 150 eurotik gora egindako erosketa guztietan. Geroztik, abantaila horri esker eta fidelizazio programako beste sustapen batzuei esker, EROSKI 52 milioi euro transferitu dizkie ekimen honetara atxiki diren familia gazteei. Era berean, EROSKI %4ko aurrezpen finko eta unibertsal bat jarri du EROSKI Cluben Urrezko Cluben titularren eskura bere erosketa guztietan.

Publizitate kanpaina euskarri guztietan

Kanpainaren alderdi sortzailea Sra. Rushmore publizitate agentziarekin batera garatu dugu, eta komunikabide guztietan izango du presentzia, EROSKIren kontsumitzaileentzat esanguratsuenak diren medioetan, formatuetan eta espazioetan.

"Erabakia berehalakoa eta aho batekoa izan zen. Sra. Rushmore hautatu genuen bere sormenagatik, komunikazioaren izaerari ekarritako aldaketa mailagatik eta inpaktuagatik, proposamen sortzaileak dakarren aukera ugariengatik eta EROSKI markaren balioekin erakusten duen bateragarritasunagatik", esan du EROSKIren Komunikazio eta Marka arloko zuzendariak, Ainhoa Oyarbidek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

azubiaga@consejerosdelnorte.com

Kanpainak ez du mugarri komunikatibo bat orain martxoan; aitzitik, urte osora luzatuko da. *"Ez da uneko kanpaina bat. EROSKIk hamabostean behin ikusaraziko duen aurrezkiaren kontakizunean oinarritzen da, eta aurrezpenean egiten ari den inbertsioa erakutsiko du", aipatu du Oyarbidek.*

Proximia Havasek medioetako estrategia garatuko du, eta markaren balioekin bat datorren berrikuntzaren aldeko apustua egingo du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

azubiaga@consejerosdelnorte.com